Busturiko Udala

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

INFORMAZIO OHARRA

Gerra Zibila Busturian, argitalpen bikoitza

- *Eusko Ikaskuntza eta Busturiko Udalaren arteko lankidetzaren emaitza dira.*
- *"Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila" eta "Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa" dute izenburu.*

Busturia, 2020ko otsailaren 20a. Eusko Ikaskuntza eta Busturiko Udalak argitalpen bikoitza aurkeztu dute gaur. Gerra Zibilean Busturiako herrian jazotako gertaeren gainean oinarrituta daude Xabier Acosta Herrero historiagileak sinatzen dituen bi liburuak. Liburuaren aurkezpenean honakoek parte hartu dute: Rosa Miren Pagola, Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordea; Aitor Aretxaga, Busturiko alkatea; Ludger Mees, ikerketa lanaren zuzendaria, eta Xabier Herrero, ikertzailea eta egilea.

Busturiko udala 1999. urtetik da Eusko Ikaskuntzaren bazkide eta, besteak beste, lankidetza horren baitan, 2016an abian jarri zuten ikerketa lana beka baten bitartez. Bi urtetako lan sakonaren ondorio, Eusko Ikaskuntzaren Lankidetzan bildumaren baitan argitaratzea erabaki zen, bi aletan, busturiar guztiek zein gaian interesa izan dezakeen orok eskuragarri izan dezaten.

"Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila" (Lankidetzan 66) da lehen alearen izenburua eta bere helburua da tokiko erakundeen bilakaera politikoa aztertzea Berrezarkuntzatik Gerra Zibila amaitu arte. Bertako bilakaera instituzionala ahaztu barik, ikerketa II. Errepublikarekin eta Gerra Zibilarekin lotutako udalerriko hainbat alderdi sozialetan zentratzen da, hala nola ideologia ezberdinen ezarpena, gatazka sozialak, mobilizazio militarra, erbestea edo errepresioa.

Bigarren alea, berriz, erregimen diktatoriala ezarri zen bitartean biztanleriaren aurka erabili zen errepresioaren azterketan zentratzen da, arreta berezia jarrita errepresaliatuen izen propioei. "Busturia (1937-1945): lehen frankismoa" (Lankidetzan 67) lanak, gainera, herrian frankismoaren lehen epealdi honi estuki lotutako beste alderdi batzuk aztertzen ditu: erbestea, nazional-katolizismoa, errazionamendua edo biztanleriaren mobilizazioa matxinatutako ejerzituan edo izaera totalitarioko taldeetan, besteak beste.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Busturiko Udala

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

Liburuak eskuragarri daude formatu digitalean Eusko Ikaskuntzaren web gunean (www.eusko-ikaskuntza.eus), eta paperekoan Busturiko udalean.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Busturiko Udala

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

NOTA INFORMATIVA

Doble publicación sobre la Guerra Civil en Busturia

- *Son fruto de la colaboración entre Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Busturia.*
- *Llevan por título "Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil" y "Busturia (1937-1945): El primer franquismo".*

Busturia, 20 de febrero de 2020. Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Busturia han presentado hoy una doble publicación. Sendos libros, que firma el investigador de historia Xabier Acosta Herrero, se basan en los hechos ocurridos en la localidad de Busturia durante la Guerra Civil. En la presentación del libro han participado: Rosa Miren Pagola, vicepresidenta de Bizkaia de Eusko Ikaskuntza; Aitor Aretxaga, alcalde de Busturia; Ludger Mees, director del trabajo de investigación, y Xabier Herrero, investigador y autor del mismo.

El Ayuntamiento de Busturia es socio de Eusko Ikaskuntza desde 1999 y, entre otras cosas, en el marco de esta colaboración, puso en marcha en 2016 este trabajo de investigación por medio de una beca. Fruto de un exhaustivo trabajo de investigación que se prolongó durante dos años, se decidió publicarlo en el marco de la colección Lankidetzan de Eusko Ikaskuntza, para que tanto los y las habitantes de Busturia como toda persona interesada en el tema pudieran tener acceso a ella.

"Busturia (1916-1937): Restauración, dictadura, II República y Guerra Civil"(Lankidetzan 66) es el título del primer número y tiene como objetivo analizar la evolución política de las instituciones locales desde la Restauración hasta el final de la Guerra Civil. Sin olvidar su evolución institucional, la investigación se centra en aspectos sociales del municipio relacionados con la II República y la Guerra Civil, como la implantación de diferentes ideologías, los conflictos sociales, la movilización militar, el exilio o la represión.

El segundo ejemplar se centra en el estudio de la represión ejercida contra la población durante la instauración del régimen dictatorial, con especial atención a los nombres propios de los represaliados. "Busturia (1937-1945): el primer franquismo" (Lankidetzan 67) analiza, además, otros aspectos íntimamente relacionados con este primer periodo del franquismo en la localidad: el exilio, el nacional-catolicismo, el racionamiento o la movilización de la población en el ejército sublevado

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

o grupos de carácter totalitario, entre otros.

Los libros están disponibles en formato digital en la página web de Eusko Ikaskuntza (www.eusko-ikaskuntza.eus) y en papel en el ayuntamiento de Busturia.